

UDALAREN KIROL-INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

2. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Kontzeptua

2. artikulua.- 1) Arau honetan ezarritako prezioak exijitzen dira Udalaren kirol instalazioen erabilerak berekin dakartzan zerbitzuen truke, erabilera nori baimendu eta pertsona eta entitate horiek erabilera-baimenak ahalbidetzen dizkien jarduerak egitean.

2) Arau honen ondorioetarako, "Udalaren kirol-instalaziotzat" hartuko dira Udalarenak diren kirol-eremuak, hormak edo hesiak inguraturik hainbat barne-espazio dituztenak, non aurreikusita baitaude herritarrak sartzeko erregulazioa eta kontrola, betiere prezio bat ordaintzeko beharrezkin. Hona arau hau aplikagarri dituzten Udalaren kirol-instalazioak –salbu utzita, betiere, zerbitzuen, jardueren edo produktuen tarifak ezartzean izan daitezkeen berezitasunak, haiek kudeatzeko kanpoko kontratazio batzuetan–:

- Udal-kiroldegiak
- Udalaren futbol-zelaiak
- Udalaren kirolguneak
- Iturramako Civivoxeko bainuetxea
- Bestelako instalazio batzuk, baldin eta aplikagarri bazaie udal-organo eskudunak hartutako erabakiaren ondorioz.

3) Oro har, eta salbu udal-zerbitzuek erabili behar dituztenean, ez da baimenik emanen Udalaren kirol-instalazioetan sartzeko kasuan kasuko instalazioak ezarrita dituen egun eta ordutegietatik at. Egun eta ordutegi horiek udal-organo eskudunak eguneratuko ditu urtero.

Aurreikusi ez diren erabilerak salbuespen gisa baimentzen ahalko dira, behar bezala justifikaturik, egin beharreko jarduera Udalaren interesekotzat jotzen bada, behin Herritarren Aferen Batzordeak entzunda.

4) Baimena jasotzen duen pertsona edo entitatearen betebeharra izanen da erabilera indarreko arauak ezarritako baldintzekin bat gauzatzea. Baldin eta erabilerak kalte edo narriadurarik eragiten badie instalazioei eta lokalei, prezio publikoa ordaindu behar duenak behar bezala leheneratu edo konpondu beharko ditu haiek, halako eran non instalazioak eta barne-espazioak erabili baino lehenago zeuden egoera berean utzi beharko baititu, edo, bestela, Udalak hori dela-eta egin beharreko gastuak oro ordaindu.

5) Baimendutako erabilera egiteko, pertsona fisiko edo entitate eskatzaileek egunean eduki behar dituzte zerga- eta lege-betebeharrak, haien izaeraren arabera dagozkienak, edo/eta aginduzko agiriak aurkeztu Udalak hala eskaturik.

6) Ez dira baimenduko ekintza terroristen, frankismo-krimenen, genero-indarkeriaren eta eraso LGTBI+fobikoen biktima diren pertsona edo taldeen aurka iraingarriak diren instalazio-erabilerak, giza eskubideak gutxiesten dituztenak edo oso astuntzat tipifikatutako arau-hausteak dakartzatenak dela Kirolaren arloko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako Legean, dela Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legean, dela Ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen Foru Legean. Inguruabar horietakoren bat gertatu eta pertsona edo entitatea prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita badago, arau honetan aurreikusitako erabileretako batengatik, tarifa arrunta ordaindu beharko du instalazioa erabiltzeari utzi arte.

7) Lagapenaren baldintzak dagokion udal-organo eskudunak onetsiko duen baimenean zehaztuko dira, eta baimen horretan arautzen ahalko da eskatzailearen betebeharra, berme nahikoa eratzeko, lagatako instalazioetan gerta daitezkeen suntsipenari edo narriadurari erantzute aldera. Bermearen gordailua itzultzeko edo hura onartutako erantzukizunei aplikatzeko, txostena egin beharko da aurrez, eta bertan adierazi nola gelditu diren erabilitako instalazioetako espazioak.

Ordaintzeko betebeharra

3. artikulua.- 1) Udalak bere kirol-instalazioak erabiltzeko nor baimendu eta pertsona edo entitate horiek izanen dute ordaintzeko betebeharra.

2) Ez da prezio publikorik eskatuko pertsona edo entitate eskatzaileak justifikatzen badu honako kasu hauetako bat gertatzen dela:

- a) Udalak berak antolatutako jarduera.
- b) Iruñeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoen eta itunduen Gorputz Hezkuntzako eskolak zein eskoletako kirol-jarduna.
- c) Ikastetxeetako irakastorduz kanpoko kirol jarduna, honako hauek antolatua bada: **a)** Iruñeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoak eta itunduak; **b)** halako ikastetxeetako guraso-elkarteak; **c)** ikastetxe horietako kirol-klubak, eta **d)** beste entitate batzuk, baldin eta parte hartzen badute ikastetxeetako kirol-proiektuen exekuzioan –betiere proiektuak kasuan kasuko ikastetxeko Eskola Kontseiluak onetsita egon behar direlarik–.
- d) Nafarroako Kirol Federazio ofizialen jarduna, honako kasu hauetan bakarrik: 1.) Eskola-kiroleko entrenamenduen antolaketa; 2.) Jolas-kirolaren antolaketa 65 urtetik gorako pertsonentzat edo edozein adinetako mendeko pertsonentzat, eta 3.) Udalaren interesekoak jotako unean uneko kirol-ekitaldien antolaketa, baldin eta, alde batetik, doakoak badira parte-hartzaileentzat nahiz ikusleentzat, eta, bestetik, aisialdikoak eta lehiarik gabekoak.
- e) Nafarroako Gobernuak antolatutako Nafarroako Kirol Jokoak, hark antolatzen ahal dituen beste jarduera batzuekin batera, betiere udal-organo eskudunak interesekotzat jotzen baditu.

- f) Bestelako erabilerak beste entitate batzuek eginak, baldin eta erabilera horiek Iruñean kirol-sustapen eraginkorra lortzearen Udalaren interesa justifikatzen duen udal-organo eskudunaren hitzarmen, kontratu edo beste erabaki edo ebazpen baten markoaren barruan egiten badira.
- 3) Nolanahi ere, prezio publikoak eskatuko dira artikuluko honen 2) apartatuan aurreikusitako kasuetan, honako hauek gertatuz gero:
- Baldin eta pertsona edo entitate eskatzaileak ez badu jakinarazten baimendutako jarduera eten egin dela, halakorik gertatuz gero, eta, horrenbestez, erabilerari uko egiten zaiola, bost egun balioduneko epean jakinarazi ere, jarduera hori noiz hasi behar eta orduz geroztik.
 - Baldin eta baimendutako erabilera bitartean 2. artikulukoaren 6) apartatuan aipatutako inguruabarretako bat gertatzen bada.
- 4) Udalaren kirol-instalazioetara doan joateko banakako sarrerak emanez saritzen ahalko dira premia soziosanitario handieneko diagnostikoa duten pertsonak jarduera fisikoko helburu jakin batzuk betetzeagatik eta horien jarraipena egiteagatik, jarduera fisikoari eta ohitura sedentarioei buruz OMEK emandako jarraibideekin bat. Udal-organo eskudunak zehaztuko ditu premia soziosanitario handiena duten pertsonen profilak, jarduera fisikoaren helburuak, jarraipena egiteko modu zehatza eta denboraldi bakoitzean izan daitezkeen sarreraren eta pertsonen gehieneko kopurua.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

4. artikulua.- Udalaren kirol-instalazioek hiru erabilera-mota izanen dituzte:

1) Erabilera jarraituak edo denboraldikoak (hilabetetik gorako iraupenekoak, normalean ikasturte bateko edo kirol-denboraldi bateko hilabeteak hartzen dituztenak).

2) Erabilera ez-jarraituak (hilabetetik beherako eta egun batetik gorako iraupenekoak).

3) Egun bakarreko erabilerak.

Denboraldiko erabileren eta erabilera ez-jarraituen prezio publikoak instalazio bakoitzerako zehazten den epean eta tokian ordaindu beharko dira, eta instalazioen erabilera-lagapenaren jakinarazpenean adieraziko dira. Behin udal-organo eskudunak erabilera-lagapena eman eta gero, baimendutako pertsona edo entitateak baja ematen ahalko du egokitzen jotzen duen egunean, baina idatziz jakinarazi beharko dio hori Udalari, baja horretarako aurreikusitako eguna baino bost egun baliodun lehenago.

Egun bakar bateko erabileren kasuan, interesdunek zuzenean eskatuko dute instalazio bakoitzean (edo, gaituta badaude, prozedura telematikoen bidez) instalazio hori erabiltzeko baimena, eskuragarri dauden ordutegietan, baldintza bakarria ezarritako prezioa alde aurretik ordaintzea izanen delarik.

5. artikulua.- Instalazioetan dauden bitartean, instalazioak edo lokalak erabiltzeko sarrerak, txartelak edo baimenak gainean eraman beharko dituzte erabiltzaileek, instalazioen arduradunek halakorik eskatuz gero haien eskura jartze aldera. Sarrerak, txartelak eta baimenak norberarenak dira, eta besterenezinak.

6. artikulua.- Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeko lagapena jaso dutenek haietan ikusleak ekartzen dituzten jarduerak egiteko, sarreraren prezioak arautzen ahalko dituzte, jarduerak kirolekoak izan ala ez, aurrez Udalaren baimenik badute.

7. artikulua. Kirolguneetako eta Iturramako Civivoxeko bainuetxeko abonamendu guztien erabiltzaileek ordainketa zatikatuta baliatzen ahalko dute bitan ordainduta, abonamendu-aldiaren hasieran eta erdialdean.

Tarifak

8. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak eta Udalaren kirol-instalazioetan murriztapenak aplikatzeko prozedura arau honen eranskinen daude jasota. Tarifa horiek barne hartuko dute, behar izatera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

9. artikulua.- Udalaren kirol-instalazioen erabiltzaileek gehienez ere 14 egun naturaleko epea izanen dute abonamendu edo sarrerei uko egin eta horiek itzultzeko, noiz erosi eta egun horretatik kontatzen hasita, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorrean aurreikusitako "atzera egiteko eskubidearekin" bat.

Abonamenduak edo sarrerak ez dira itzuliko, ez osorik ez hein batean, honako kasu hauetan:

- Erosi zirenetik 14 egun baino gehiago iraganez gero.
- Erabiliak izan badira, osorik edo hein batean.
- Erositako sarrerak, edozein eratakoak, egun batekoak badira.

10. artikulua.- Prezio publikoa ordaindu beharko dute, salbu arau honetan aurreikusitako salbuespen-kasuetan, urtean zehar Udalaren kirol-instalazioetako areto jakin batzuk bilerak egiteko edo egoitza egonkor gisa izateko erabili nahi dituzten entitateek. Erabilera horiek Udalaren berriarazo baimena beharko dute, Iruñean kirol-sustapen eraginkorra lortzearen Udalaren interesa justifikatu behar duen hitzarmen, kontratu edo udal-organo eskudunaren beste erabaki edo ebazpen baten esparruan.

11. artikulua.- Oro har, kiroldegiak eta futbol-zelaiak ezin izanen dira laga banakako erabileretarako. Horrenbestez, I. epigrafean instalazio horietarako aurreikusitako tarifak gutxienez 10 pertsonak osatu behar duten entitate eta taldeen erabilera kolektiboari aplikatuko zaizkie, salbu epigrafe horretarako aipatzen diren salbuespenen kasuan.

12. artikulua. Iturramako Civioxeko bainuetxean ez dira onartuko entitateen taldekako erabilerak. Aitzitik, Udalaren kirolguneetan ontzat emanen dira banakako zein taldekako erabilerak, haiek arautzen dituzten berariazko erabilera-arauekin bat. Udaldian, Udalaren kirolguneetan ez da onartuko, oro har, talde-erabilerarik, salbu Udalaren interes bereziko zatitako programetan eta betiere ez badute arriskuan jartzen erabiltzaileen aisialdiko erabilera librea, ez eta Udalaren jardura antolatuak ere. Horrenbestez, II. epigrafean instalazio horietarako aurreikusitako tarifak banakako erabilerei aplikatuko zaizkie gehien bat, salbu epigrafe horretarako aipatzen diren salbuespenen kasuan.

13. artikulua.- Arau honen tarifa-eranskinean, kirolguneen eta Iturramako Civioxeko bainuetxearen banakako erabilerei dagokien II.5 epigrafean, jasotako murriztapenak arau hauen arabera aplikatuko dira:

Murriztapenei heldu nahi dieten eskatzaileek agerrarazi beharko dute baldintzak betetzen dituztela ezarritako epean, hori egiaztatzeko agiriak nahitaez aurkeztuta, artikulua honetan adierazitakoarekin bat. Alor kudeatzaileak ezarritako kasuetan non posible baita ofizioz egiaztatzea, eskatzaileak betekizuna egiaztatzeko aurkeztu behar duen agiriaren ordean egiaztapen horretarako behar den baimena aurkeztuko du.

Egiaztatzeko agiriak:

- a) Murriztapena familia ugaria izateagatik jasotzeko, familia ugariko titulua, betiere familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean –zeina maiatzaren 18ko 6/2005 Foru Legeak aldatu baitzuen– ezarritako definizioarekin bat. Murriztapena familia gurasobakarrei aplikatzeko, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legeak ezarritako definizio eta arautzearekin bat, familia gurasobakarreko titulua.
 - b) Murriztapena familia-unitatearen diru-sarrerak direla medio jasotzeko, familia-unitateko kideek urtean jasotako diru-sarrera gordinen aitorten justifikatua eta PFEZa egiteko betebeharra duten kideen zerga horren gaineko aitortpena edo likidazioa, eskaera noiz egin eta jada data horretan aurkezteko epea amaiturik duen ekitaldiari dagokiona. Betebeharrak ez badago PFEZaren gaineko aitortpenik egiteko, datu fiskaletan jasotako diru-sarrera gordin eguneratuak hartuko dira kontuan.
 - c) Murriztapena desgaitasuna dela medio jasotzeko, agiri ofizial bat, non jasoko baita eskatzaileak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duela, edo ezintasun iraunkorra zein baliaezintasuna direla bide administrazio publikoaren diru-prestazioak jasotzearen gaineko egiaztapena.
 - d) Murriztapena terrorismo-ekintzen biktima izateagatik jasotzeko, biktima-izaera aitortzen duen administrazio-ebazpena edo epaia, eta biktima batekin ahaidetasun-harremanik izanez gero, hori egiaztatzen duen agiria.
 - e) Murriztapena genero-indarkeriaren biktima izateagatik jasotzeko, hori aitortzen duen epaia, eta biktima batekin ahaidetasun-harremanik izanez gero, hori egiaztatzen duen agiria.
 - f) Murriztapena familiek beren baitan beste pertsona batzuk hartzeagatik jasotzeko, familia-harrera formalizatzen duen agiria edo hura erabaki duen administrazio-ebazpena edo epaia.
 - g) Murriztapena gizarte-bazterketako egoeran dauden etorkinek jasotzeko, pertsona horien harrera egiten ari den entitate akreditatuaren ziurtagiria, dela bere kabuz dela harrera-familien bidez, egiten ari den entitate akreditatuaren ziurtagiria.
- 3) Zehaztapenak, familia-unitatearen diru-sarrerak direla medio jasotzekoak diren murriztapenetarako:
- a) Familia-unitatea: Prezio publikoa kalkulatzeko, PFEZaren gaineko indarra duten arauetan xedatutako familia-unitatea hartuko da aintzat.
 - b) Errenta: PFEZaren gaineko aitortpena edo likidazioa egiteko betebeharra duten familia-unitateko kideen azken aitortpena edo likidazioa –eskaera noiz egin eta data horretan jada aurkezteko epea amaiturik duen ekitaldiari dagokiona– hartu, eta haren zerga-oinarriaren parte orokorra eta aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia batuko dira, eta emaitzari salbuetsitako prestazioen edo errenten zenbatekoa gehituko zaio. Ez dira salbuetsitako prestazio edo errentatzat hartuko Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak (PAGNA) mendekotasuna duten pertsonak familia-ingurunean zaintzeko emandako laguntzak, baldin eta zaintza horiek familiakoek edo profesionalak ematen badituzte. Baldin eta errentaren ondoriozko murriztapen bat adingabeei bakarrik aplikatu nahi bazaie, eta haien gurasoek aitorten bereziak egiten badituzte, bi aitortpenak aurkeztu beharko dira.
 - c) Errenta garbia: errenta garbia kalkulatzeko, aurreko apartatuan zehaztutako errentaren eta gastu kengarrien diferentzia hartuko da kontuan.
 - d) Gastu kengarriak. Errentari dagokion ekitaldian ordaindutako zenbatekoak, jarraian adierazitako kontzeptuengatik:
 1. Ohiko etxebizitzako gastuak (muga: 4.800 € urteko), honako kontzeptu hauek batuta:
 - Ohiko etxebizitzaren, apartamentu babestu publiko baten edo antzeko beste zerbaiten alokairua.
 - Ohiko etxebizitza erosteko maileguaren amortizazioa.
 - Ohiko etxebizitza egokitzeko edo birgaitzeko lanek sortutako gastuak, pertsonen behar soziosanitarioengatik edo eraikinak jasangarriago bilakatzeko beharregatik.
 2. Langileak kontratatutako gastuak gizarte- eta osasun-egoera dela medio halakorik behar duten pertsonen beren etxeetan jarraitu dezaten arreta pertsonala jasotzen, betiere hori guztia frogatzeko modukoa izanda, dela mendekotasuna aitortzeko ebazpen baten bidez, dela Udaleko gizarte-zerbitzuek egindako txosten baten bidez (muga: 8.400€ urteko).
Gastu kengarria ezartzeko, hala badagokio, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak (PAGNA) mendekotasuna duten pertsonak familia-ingurunean zaintzeko kobratutako laguntzak kenduko dira. Kenkari horri heltzeko, kontratatutako pertsonaren kontratua eta Gizarte Segurantzako alta aurkeztu beharko dira.
 3. Eguneko zentroetako egonaldi-gastuak (muga: 4.800 € urteko) edo egoitza geriatrikoetako egonaldi-gastuak (muga: 12.000 € urteko).
 4. Pentsio konpentsatzaileak: epai judizialean jasotakoak. (Bakarrik aplikatzen ahal da PFEZaren aitortpenaren zerga-oinarritik errenta kalkulatzeko ez den kasuetan).

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA.- UDALAREN KIROLDEGIAK ETA FUTBOL- ETA SOFTBOL-ZELAIK:

I.1. Kirol-pista estaliak, trinketa, pilotaleku estaliak, erabilera anitzeko aretoak eta kiroldegietan taldeka erabiltzeko erreserbatzen ahal diren bestelako kirol eremu estaliak	
Erabilera jarraituak edo denboraldikoak entrenamendu eta lehiaketetarako	
I.1.1. Lehen ordua, aldagelak ere erabilita	37,23 euro
I.1.2. Bigarren ordua eta hurrengoak, lehen erabilera-orduaren egun berean	8,11 euro
Baldin eta lagatako kirol-espazioek talde desberdinek aldi berean erabiltzeko aukera ematen badute, I.1.1 eta I.1.2 tarifak –zeinak espazio bakoitzaren erabilera oso edo erabatekoei baitagozkie— haien artean hainbanatu ahal izanen dira. Ordu erdiko erabileretan, egun bereko bigarren ordutik aurrera, I.1.2. tarifaren erdia aplikatuko da.	
I.1.3. Murriztapenak erabilera jarraitu edo denboraldikoetarako. Kirol-denboraldian (irailaren 15etik ekainaren 15era) entrenamendu eta lehiaketetarako guztira erabilitako ordu-kopuruaren arabera, erabilera-lagapenaren hartzailleek murriztapen-portzentaje hauek lortzen ahalko dituzte:	
- - 1.000 ordutik goitik erabilita	% 60
- 751 eta 1.000 ordu bitarte erabilita	% 40
- 501 eta 750 ordu bitarte erabilita	% 30
- 250 eta 500 ordu bitarte erabilita	% 20
Erabilera ez-jarraituak edo egun bakarrekoak, aldian aldiko kirol-ekitaldietarako, kirol campusetarako edo antzeko jardueretarako, publikoarendako doakoak badira	
I.1.4. Lehen ordua, aldagelak ere erabilita	40,95 euro
I.1.5. Bigarren ordua eta hurrengoak, lehen erabilera-orduaren egun berean	8,93 euro
I.1.6. Muntatze- eta desmuntatze-lanetako ordu bakoitzeko	40,95 euro
Erabilera ez-jarraituak edo egun bakarrekoak, aldian aldiko kirol-ekitaldietarako, kirol campusetarako edo antzeko jardueretarako, publikoarendako ordainpekoak badira	
I.1.7. Lehen ordua, aldagelak ere erabilita	52,12 euro
I.1.8. Bigarren ordua eta hurrengoak, lehen erabilera-orduaren egun berean	11,37 euro
I.1.9. Muntatze- eta desmuntatze-lanetako ordu bakoitzeko	52,12 euro
Kiroletakoak ez diren erabilera ez-jarraituak edo egun bakarrekoak	
I.1.10. Lehen ordua, aldagelak ere erabilita	59,57 euro
I.1.11. Bigarren ordua eta hurrengoak, lehen erabilera-orduaren egun berean	13,01 euro
I.1.12. Muntatze- eta desmuntatze-lanetako ordu bakoitzeko	59,57 euro
I.2. Mendillorriko muskulazio-aretoa eta udal-kiroldegiei atxikitako frontoi estaliak (banakako erabilera, aldagela erabiltzeko eskubidea barne)	
I.2.1. Pertsona eta ordu bakoitzeko	3,26 euro
I.2.2. 20 erabilerarako abonamendua, pertsona eta ordu bakoitzeko	57,17 euro
Muskulazio-aretoa ezin izanen dute erreserbatu ez taldeek ez gizabanakoek.	
I.3. Mendillorriko trinketa eta kiroldegietan baimendutako bestelako banakako erabilera bereziak	
I.3.1 Erabilera, pertsona eta ordu bakoitzeko (aldagelarako eskubidea barne)	5,61 euro
I.4. Futbol-zelaiak eta softbol-zelaia	
Erabilera jarraituak edo denboraldikoak entrenamendu eta lehiaketetarako	
I.4.1. Lehen ordua, aldagelak ere erabilita	20,96 euro
I.4.2. Bigarren ordua eta hurrengoak, lehen erabilera-orduaren egun berean, aldagelak ere barne	3,37 euro
I.4.3. Ordu bakoitzeko erabilera, egun berean edo gehiagotan, aldagelarik erabili gabe	3,37 euro
Baldin eta lagatako kirol-espazioek talde desberdinek aldi berean erabiltzeko aukera ematen badute, I.4.1, I.4.2 eta I.4.3 tarifak –zeinak espazio bakoitzaren erabilera oso edo erabatekoei baitagozkie— haien artean hainbanatu ahal izanen dira. Ordu erdiko erabileretan, egun bereko bigarren ordutik aurrera, I.4.2. tarifaren erdia aplikatuko da.	
Erabilera ez-jarraituak edo egun bakarrekoak, aldian aldiko kirol-ekitaldietarako, kirol campusetarako edo antzeko jardueretarako, publikoarendako doakoak badira	
I.4.4. Lehen ordua, aldagelak ere erabilita	23,05 euro
I.4.5. Bigarren ordua eta hurrengoak, lehen erabilera-orduaren egun berean, aldagelak ere barne	3,72 euro
I.4.6. Lehen ordua, aldagelarik erabili gabe	3,72 euro
I.4.7. Muntatze- eta desmuntatze-lanetako ordu bakoitzeko	23,05 euro
Erabilera ez-jarraituak edo egun bakarrekoak, aldian aldiko kirol-ekitaldietarako, kirol campusetarako edo antzeko jardueretarako, publikoarendako ordainpekoak badira	

I.4.8. Lehen ordua, aldagelak ere erabilita	32,28 euro
I.4.9. Bigarren ordua eta hurrengoak, lehen erabilera-orduaren egun berean, aldagelak ere barne	4,74 euro
I.4.10. Lehen ordua, aldagelarik erabili gabe	4,74 euro
I.4.11. Muntatze- eta desmuntatze-lanetako ordu bakoitzeko	32,28 euro
Kiroletakoak ez diren erabilera ez-jarrituak edo egun bakarrekoak	
I.4.12. Lehen ordua, aldagelak ere erabilita	33,56 euro
I.4.13. Bigarren ordua eta hurrengoak, lehen erabilera-orduaren egun berean, aldagelak ere barne	5,41 euro
I.4.14. Lehen ordua, aldagelarik erabili gabe	5,41 euro
I.4.15 Muntatze- eta desmuntatze-lanetako ordu bakoitzeko	33,56 euro

I.5. Aretoen erabilera bilerak egiteko edo egoitza egonkor gisa erabiltzeko	
I.5.1. Urteko erabilera, Udalaren kirol-instalazioetan bilerak egiteko edo egoitza egonkor gisa erabiltzeko, aurretiko berariazko baimenarekin, metro koadroko	20,40 euro

I.6. Aparteko beharrak	
Baldin eta Udalaren kirol-instalazioen erabilera-lagapenak, I. epigrafe honetan aurreikusten denak, berekin badakar udal-langile gehiago aritu behar izatea, dagokien prezio publikoaz gain honako hau ordaindu beharko da langile eta ordu bakoitzeko:	22,85 euro

II. EPIGRAFEA.- UDALAREN KIROLGUNEAK ETA ITURRAMAKO CIVIVOXEKO BAINUETXEA. BANAKAKO ERABILERA

II.1. URTE OSOA (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra). Ez da aplikagarria Iturramako Civivoxeko bainuetxean.	
II.1.1.- 10 eguneko abonamenduak (ondo ondokoak ez diren egun naturalak; mugaeguna: abenduaren 15a):	
- 2 – 13 urte	19,28 euro
- 14 – 24 urte	21,78 euro
- 25 – 64 urte	31,77 euro
- 65 urtetik gora	19,28 euro
II.1.2.- 30 eguneko abonamenduak (ondo ondoko egun naturalak; mugaeguna: abenduaren 1a):	
- 2 – 13 urte	21,06 euro
- 14 – 24 urte	29,33 euro
- 25 – 64 urte	42,18 euro
- 65 urtetik gora	21,06 euro
II.1.3.- 90 eguneko abonamenduak (ondo ondoko egun naturalak; mugaeguna: urriaren 1a):	
- 2 – 13 urte	52,63 euro
- 14 – 24 urte	73,29 euro
- 25 – 64 urte	105,47 euro
- 65 urtetik gora	52,63 euro
II.1.4.- 180 eguneko abonamenduak (ondo ondoko egun naturalak; mugaeguna: uztailearen 1a):	
- 2 – 13 urte	72,88 euro
- 14 – 24 urte	101,49 euro
- 25 – 64 urte	145,91 euro
- 65 urtetik gora	72,88 euro
II.1.5.- Urteko abonamenduak (urtarrilak 1 – abenduak 31):	
- 2 – 13 urte	125,00 euro
- 14 – 24 urte	174,06 euro
- 25 – 64 urte	250,16 euro
- 65 urtetik gora	125,00 euro
II.2. UDAN BAKARRIK (oro har, ekainaren 15etik irailaren 15era). Ez da aplikagarria Iturramako Civivoxeko bainuetxean.	
II.2.1. Egun bateko sarrerak. Lanegunetan:	
-- 2 – 13 urte	2,75 euro
- 14 – 24 urte	3,11 euro
- 25 – 64 urte	4,54 euro
- 65 urtetik gora	2,75 euro
II.2.2. Egun bateko sarrerak, jaiegunetan eta sanferminetan:	
- 2 – 13 urte	2,75 euro
- 14 – 24 urte	3,98 euro
- 25 – 64 urte	5,61 euro
- 65 urtetik gora	2,75 euro

II.2.3. Udako denboraldiko abonamenduak (mugaeguna: uztailaren 25a):	
- 2 – 13 urte	41,11 euro
- 14 – 24 urte	61,71 euro
- 25 – 64 urte	82,37 euro
- 65 urtetik gora	41,11 euro
II.3. URTEAREN GAINERAKO ALDIA (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, salbu udan). Ez da aplikagarria Iturramako Civivoxeko bainuetxean.	
II.3.1. Egun bateko sarrerak:	
-2 – 13 urte	3,93 euro
- 14 – 24 urte	3,98 euro
- 25 – 64 urte	5,61 euro
- 65 urtetik gora	3,93 euro
II.3.2. Denboraldiko abonamenduak urtearen gainerako aldirako:	
- 2 – 13 urte	121,99 euro
- 14 – 24 urte	169,47 euro
- 25 – 64 urte	243,42 euro
- 65 urtetik gora	121,99 euro
II.4. Tarifak Iturramako Civivoxeko bainuetxerako.	
II.4.1. Egun bateko sarrerak:	
- 2 – 13 urte	3,93 euro
- 14 – 24 urte	3,98 euro
- 25 – 64 urte	5,61 euro
- 65 urtetik gora	3,93 euro
II.4.2. 30 eguneko abonamenduak (ondo ondoko egun naturalak):	
- 2 – 13 urte	21,06 euro
- 14 – 24 urte	29,33 euro
- 25 – 64 urte	42,18 euro
- 65 urtetik gora	21,06 euro
II.4.3. Denboraldiko abonamenduak (urritik ekainera):	
- 2 – 13 urte	121,99 euro
- 14 – 24 urte	169,47 euro
- 25 – 64 urte	243,42 euro
- 65 urtetik gora	121,99 euro
II.4.4. Denboraldi erdiko abonamendua (otsailetik ekainera)	
- 2 – 13 urte	80,73 euro
- 14 – 24 urte	112,42 euro
- 25 – 64 urte	161,56 euro
- 65 urtetik gora	80,73 euro
II.5.- Murriztapenak:	
<p>II.5.1.- Honako hauek % 50eko murriztapena izanen dute erosten dituzten sarrera eta abonamenduetan:</p> <p>a) Familia ugariaren, guraso bakarren eta harrera-familien kideak, baita harrera-egoeratik datozen edo harrera-egoeran dauden 25 urtetik beherakoak ere (harrera hori familia batean zein egoitza batean izan).</p> <p>b) % 33ko desgaitasuna edo handiagoa legez aitortuta duten pertsonak.</p> <p>c) Terrorismoaren biktima-izaera epai edo administrazio-ebazpen baten bitartez aitortua duten pertsonak, beren gurasoak, seme-alabak eta ezkontideak edo bikotekide egonkorak.</p> <p>d) Etxeko eremuan gauzatutako genero-indarkeria fisikoaren edo psikikoaren delituaren biktima, epai baten bitartez aitortua, beren gurasoak, seme-alabak eta ezkontideak eta ezkontide edo bikotekide egonkorak –betiere epaiak ez baditu jo delituaren erantzule kriminalak–.</p> <p>e) Bereak ez diren familiek hartuak izan diren pertsonak, ebazpen judizial zein erabaki baten edo Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzaren edo pertsona hori babesteko ardura duen entitate publikoaren oniritziaren bitartez hartuak izan badira.</p> <p>f) Gizarte-bazterketako egoeran dauden etorkinak.</p> <p>Epigrafe honetan ezarritako murriztapen bat baino gehiago jasotzeko eskubiderik edukiz gero, murriztapenak ezin dira elkarrekin metatu.</p>	
II.5.2. % 10eko murriztapena edukiko dute 14 eta 30 urte bitarteko pertsonak eta langabetuek, erosten dituzten abonamenduen guztizko zenbatekoan. Murriztapen hau ez da metagarria izanen beste murriztapen batzuekin, halakoak jasotzeko eskubidea izanez gero.	
II.5.3. Murriztapenak errentaren arabera:	
Familia-unitatearen diru-sarrerak	Murriztapen-ehunekoa
Errenta Bermatuaren % 100 edo gutxiago	% 90
Errenta Bermatuaren % 200 edo gutxiago	% 50

Murriztapen hau ez da metagarria izanen beste murriztapen batzuekin, halakoak jasotzeko eskubidea izanez gero. Murriztapen hauek sarrerak erosteko orduan aplikatzeko, aurretik profil bat sortu beharko da instalaziora sartzeko programa informatikoan.

III. EPIGRAFEA.- UDALAREN KIROLGUNEAK. ENTITATEEN TALDE-ERABILERA.

III.1. Igerileku-kaleak Udalaren kirolguneetan	
Erabilera jarraituak edo denboraldikoak entrenamendu eta lehiaketetarako	
III.1.1. Lehen ordua, aldagelak erabilia, 1 edo 2 kale erabiltzeko.	45,49 euro
III.1.2. Bigarren ordua eta hurrengoak, lehen erabilera-orduaren egun berean, aldagelak ere barne, 1 edo 2 kale erabiltzeko.	8,11 euro
III.1.3. Lehen ordua, aldagelak erabilia, 3 edo kale gehiago erabiltzeko.	68,24 euro
III.1.4. Bigarren ordua eta hurrengoak, lehen erabilera-orduaren egun berean, aldagelak ere barne, 3 kale edo gehiago erabiltzeko.	12,16 euro
Kirol-denboraldi batean guztira zenbat ordu erabiltzen diren, % 40ko murriztapena egiten ahalko da 50 ordu baino gehiago erabiltzen badira, I.1.1etik I.1.4ra bitarteko tarifetan aurreikusitako orduak metatzeagatik. Deskontu hori igerilekurik ez duten kirol-entitateei baino ez zaie aplikatuko.	
III.2. Kirol-pista estaliak, pilotaleku estaliak, padeleko pistak, erabilera anitzeko aretoak eta Udalaren kirolguneetan taldeka erabiltzeko erreserbatzen ahal diren bestelako kirol-eremu estaliak	
Erabilera jarraituak edo denboraldikoak entrenamendu eta lehiaketetarako	
III.2.1. Lehen ordua, aldagelak ere erabilia	37,23 euro
III.2.2. Bigarren ordua eta hurrengoak, lehen erabilera-orduaren egun berean	8,11 euro
Baldin eta lagatako kirol-espazioek talde desberdinek aldi berean erabiltzeko aukera ematen badute, III.2.1 eta III.2.2 tarifak –zeinak espazio bakoitzaren erabilera oso edo erabatekoei baitagozkie— haien artean hainbanatu ahal izanen dira. Ordu erdiko erabileretan, egun bereko bigarren orduetik aurrera, III.2.2. tarifaren erdia aplikatuko da.	
Erabilera ez-jarraituak edo egun bakarrekoak, aldian aldiko kirol-ekitaldietarako, kirol campusetarako edo antzeko jardueretarako, publikoarendako doakoak badira	
III.2.3. Lehen ordua, aldagelak ere erabilia	40,95 euro
III.2.4. Bigarren ordua eta hurrengoak, lehen erabilera-orduaren egun berean	8,93 euro
III.2.5. Muntatze- eta desmuntatze-lanetako ordu bakoitzeko	40,95 euro
Erabilera ez-jarraituak edo egun bakarrekoak, aldian aldiko kirol-ekitaldietarako, kirol campusetarako edo antzeko jardueretarako, publikoarendako ordainpekoak badira	
III.2.6. Lehen ordua, aldagelak ere erabilia	52,12 euro
III.2.7. Bigarren ordua eta hurrengoak, lehen erabilera-orduaren egun berean	11,37 euro
III.2.8. Muntatze- eta desmuntatze-lanetako ordu bakoitzeko	52,12 euro
Kirol-taldekak ez diren erabilera ez-jarraituak edo egun bakarrekoak	
III.2.9. Lehen ordua, aldagelak ere erabilia	59,57 euro
III.2.10. Bigarren ordua eta hurrengoak, lehen erabilera-orduaren egun berean	13,01 euro
III.2.11. Muntatze- eta desmuntatze-lanetako ordu bakoitzeko	59,57 euro

IV. EPIGRAFEA.- TXARTEL BERRIA EGITEA

- Udalaren akreditazio-txartela galduz gero, berriro egitea, txartel bakoitzeko.	11,42 euro
--	------------